

Nafarkaria

Nafarrokako gehigarria / Ostirala, 1992ko abuztuak 28 / II. urtea / 39. zenbakia

Artzain Eguna hogeitabostgarrenez

Igande honetan ospatuko da Uharte-Arakilen Nafarroako Artzain Eguna. Hogeitabostgarren edizioa dagoeneko, eta hasieran arratsalde on bat pasatzeko aitzakia zena, azkenean artzain eta gaztaren promoziorako funtsezko egun bihurtua dugu. Ez da ezer 'berezirik' izango urtebetetze hau ospatzeko, Jose Mari Uztarroz Aralar-Mendi elkartekoak esaten duenez, «hogeitabost urte betetzea, berez, espeziala bait da».

Barnean

EKONOMIA



Nafarroa eta Iparaldeko harremani buruzko azterketa/IV-V

MENDIA



Mari Abrego, mendizale baina, 'mendigizon' /VIII



Metropoli Forala



FELIPE RIUS

Poesia idazten saiatu naiz behin baino gehiagotan, baina oporren hurbiltasunak niregan piztu ohi dituen Simbad marinelaren irudi infantilekin ametsetan

hasten naizenean telebistari begiratzen badiot boligrafoa, koaderno eta burumui-na mahai gainera botatzen ditut heriotzaren aztarnak egongela betetzen duten bitartean. Orduan, poesia idatzi beharrean duela zenbait urte 2CV batean zeharkatu nituen hiri horietan egiten ari diren txikizioaren berri eman beharko nukeela —testimonio hitzak konno-

tazio handiegiak ditu agnostiko-ateontzat— eta zodiac txiki batean eta plastiko laranjez estalirik bale untziren baten aurrean jarri beharko nukeela pentsatzen dut sarritan.

Telediariora bukatzen de-

nean, telenobelak minimalismora kondenatuak gaudela gogoratzen dit. Aurretik bururatutako heroizidadeak umekeria bat besterik iruditzen ez zaizkidanez, koaderno jasotzen eta bertso neurtuak asmatzeari ekiten diot, baina berehala jartzen dute beste informatibo bat eta idatzitako guztia ezabatzen dut, hainbeste gorpuk lirika egiteko gogo guztia kentzen dit eta. Beharbada horregatik narradorez betetzen ari zaigu mundua eta poetak, baleak bailiran, desagertzeko zorian daude.

Gure aukerak

Aratzuriko festekin batera

MUSIKA



Bolivia Manta taldeak 'Omenaldia Andeatoko orkestra herrikoiei' izeneko emanaldia eskeiniko du gaur bertan, ostirala, gabeko hamarretatik aurrera. Ekitaldia Erriberriko eskenatokia izango da, Nafarroako Jaialdeien egitarauaren barruan.

Bolivia Manta talde hegoamerikarraren errepertorioa, Andeatoko goi lautadetako (Peru, Boliviako Titicaca lakua eskualdea eta Ecuador) 'quechua' eta 'aymara' indiarren ohiturak gogora ekartzen dituzten musika eta herri-kantaz dago osatua. Amodiozko kantak, festetako orkestrak, kanta sakratuak, arbasoen omenezkoak, eta jainkoei egindako eskariak dira talde honen langaietako batzuk.

Tresnen soinua (kenak, sikuak, errondadorea, phalak, aykhorriak, pinkilloak, mandolinak, arpa, kitarrak, txarangoak, etab.), hala nola haiei darien izpiritua, Europako edozein herri-tako kaleetan entzun ohi dugun folklore hegoamerikarretik aski urrun daude.

Dire Straits talde famatuak bere lehendabiziko kontzertua emango du Nafarroan heldu den astelehenean, hilak 31, Iruñeko Zezenplazan. Sarrerak aspaldidanik daude agortuak, baina horietariko bat baldin badaukazu presta zaituzte gaurko talderik ho-

Aratzuriko festak izango dira asteburu honetan, eta bertako ekitaldi famatuena txerri lasterketak dira, nola ez. Baina horretaz gain, Oltza Zendeako herri honetako festek merezitako fama dute dagoen inguruko herrietan, giro aparta dela eta, eta Iruñetik bertatik jende franko hurbiltzen ohi da beti.

Bertaraino inoiz joan ez bazarra, baduzu orain aukera ederra, festaz gain, ibilbide politak egiteko aukera bait duzu. Horrela, Aratzurin bertan, Jauregia ikus daiteke, gotiko estilokoa. XV. mendean Lancelot Nafarroakoa eta Juan Elokoarena izan zen, patriarka lehendabizikoa eta erret kutxazaina bigarrena. Ondoren Beaumont familiarena izan zen, eta 1512an Albako dukearen armadari sostengua eman zion. Ondare Historikoa dago izendatuta 1966z geroztik.

Iberon, bestalde, azpimarratzekoak dira etxeak eta eraikin zibilak, harmarria eta arku azpimarragarriekin. Oltzan, bestalde, XV. mendeko beste jauregia da-



go, eranskin batekin, dorrearen modukoa.

Hau oso ohizkoa izaten da Iruñerri osoan.

Herri gehienetan, bestalde, Erdi Aroko zubiak ikus daitezke

Arakil ibaiaren gainetik, denak nahiko ongi kontserbaturik. Halaber, Ororbian eta Orkoien XVI. mendeko gurutzeak daude herriaren erdian, bide ertzetan eraikitzen zirenak.

berenetakoa entzutera. Ez galdu aukera!

Sonora Candela taldeak joko du bihar larunbata, hilak 29, Iruñerriko Foru enparantzan, bertako festak direla eta. Gaberdian izango da.

ANTZERKIA



Zooren historia, Edward Albeerena eskeiniko du igande honetan, abuztuak 30, Espainiako Centro Dramatico Nacionalek. Emanaldia Iruñeko Gaiarre Antzokian izango da, arratseko zor-

tziatan, eta bertan Pulitzer saria bi aldiz jaso zuen Albeek lan bikaina eskeintzen digu, batipat eraikuntzaren kalitateagatik eta kontzepzioaren ausardiagatik. Gaia da, azken finean, gizakiek elkarren komunikatzeko izaten duten zailtasun ikaragarria eta, gehienetan, gairazina. Bere gizar-tean ongi kokatutako gizona,

ERRAN DUTE

ASTEKO PERTSONAIK



Atxitarteko auziak UPNren hausdura ekar dezake».

Rafael Gurrea

UPNko idazkari orokorra

«Okupak talde erradikal baten partaideak dira».

Alfredo Jaime

Iruñeko alkatea

«Onenen artean lekua badudala uste dut».

Carlos Armendariz

Pilotaria

«Espainian korrupzioa gori-gorian dago».

Amando de Miguel

Soziologoa

Iñaki Cabases



Eako burua

EAko gizonek jokaldi ederra egin zioten UPNkoei joan den astean, eta azkenean Atxitarteko patata beroa, erregionalisten esku utzi zuten berriro ere, hauen atsekaberako. Cabasesek esan zuenez, «hori bait zen bere lekua». Patata bero honek erredura asko utzi ditu bere ibilbide luzean, baina sakonenak UPNn baitan gelditu dira. Azken aste honetako gertakari orbanak zatitu ere, zatitu lezake UPN bera, Allik eta bere jarraitzaileek egin dituzten mugimenduak ez bait dira askoren gustokoak izan. Gurrea, Del Burgo eta Aizpun jipoi ederra hartu dute, hartu ere.

Alfredo Jaime



Iruñeko alkatea

Lore Etxea eta bertan zeuden Okupak bota ondoren, ohizkoak dituen agerraldiak egin zuen Alfredo Jaimek, bere ekin-tza azltzeko. Bertan, etxean aurkitutako zerrenda egin zuen, eta «edozein lapurri bezalaxe» jarraituko ziela azaldu zuen. Alfredo Jaimek ohituta gauzka tonuz kanpoko esaldiekin, baina garbi dago okupak ez direla lapurrak. Ez, urte luzez hutsik dagoen etxe batean sartu eta bertatik, ongi ala txarki, bizitzen eta ekitaldi batzuk antolatzen saiatzen direnean. Ez dira lapurrak, etxe hori, zerbaitetarako erabili beherrean, bota egin bait du udalak.

Tomas Yerro



Jaialdietako zuzendaria

Asteburu honetan amaituko dira aurtengo Nafarroako Jaialdiak, igadean arratsaldeko zortzietan Centro Dramatico Nacionalek aurkeztuko duen 'Zooren historia' lanarekin. Tomas Yerrok aurtun lehendabiziz zuzendutako jaialdi hauen balantzea egiteko goiz da oraindik, eta horretarako astia izango du aurrerago. Hala ere, bi gauza azpimarratu daiteke: jende gutxiago azaldu dela ekitaldi nagusietara, eta emanaldien kalitateak gora egin badu ere, kalean gutxiago nabarmendu dela, batez ere herrietan. Hala ere izango da balantzeetarako denbora.

bera bezain zorioneko ez direnek pairatzen dituzten arazoez jabetzen ez dena.

BESTELAKOAK



Alakiketan izeneko emanaldia eskeiniko du Argia Euskal Dantzari taldeak bihar larunbata, Erriberriko jaialdien tokian, gaueko 10etatik aurrera. 'Alakiketan' burdingintzako danborraren onomatopeia, da Argia taldek bere azken ikuskarirako hautatu duen izena, non parte hartzen baitute 16 musikarik eta 180tik goraz dantzarik. Euskal dantzetan espezialista den talde honek Erriberri eskeiniko du oihartzun mitikodun koreografia bat, Juan Antonio Urbeltzek sortutakoa. Egilearen esanetan, turko eta kristauren arteko gatazkan oinarritutako emanaldia da, «musikaren ontasuna eta mugimenduaren arintasun sentsuala adierazten duena, horrelako borroka zentzugabearen basakerai ahaz arazteko hain zuzen ere». Argia taldeak 60-70ko hamarkadan eman zion hasiera bere lanari; gaur egun Europa eta Amerika aldean ezagutarazi dituzten hirurehun dantza eta bostehun herri-doinu ditu bere ondarean.

Diruaren hamarkada izeneko ikastaroaren azken eguna izango da gaur, ostirala, eta bertan Carlos Malo de Molina SIGMA 2-giza ikerketetarako agentziaren burua arituko da 'Espainiarrak diruaren aurrean: inbidia eta utelkeriaren artean' gaiarekin.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenan FMn 21.00etatik 22.00etara... Gautxori irratia musika. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

Eskualdearen Eguna Irunberrin

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Irunberriko festek hasiera ezin hobea izango dute aurten, bertakoek ezezik, eskualde osoko herriarrek ere parte hartuko bait dute heldu den igandean, hilaren 30ean. Aurten lehendabiziko aldiz, Eskualdearen Eguna ospatuko da, eta horretarako, Urralgoiti, Urralbeiti eta Romanzadoko udal guztietako ordezkariak egin zaie gonbitea. Horrela, eta erraldioen kontzentrazioaren ondoren, bazkaria izango da udal ordezkari guztien artean.

Ostegunez, bestalde, Haurren Eguna ospatuko du Irunberri, eta horretarako Haur Udala aukeratuko da hamar-hamabi urte bitarteko mutiko eta neskatilen artean. Horietariko bederatziz izango dira egun batez herriko erregeak, eta beren artean aukeratuko dute alkatea. Egun horretan berak

eramango du 'herriaren ardura', eta ardura ezezik, inolako ikuskizunaren falta ere ez dute igarriko txikienek. Hamaiketan beren suzuria piztuko dute, eta mezaren ondoren, 12etan, karting izango dute gozatzeko. Ondoren txarangak eta desfileak izango dira, eta arratsaldeko sei t'erdietan betizuak. Ondoren, txaranga, kaleetan zehar.

Egun berezi hauetaz gain, astean zehar txarangak, zezensuzkoak, betizuak eta berbenek alaituko dituzte herriko kaleak. Astelehenean ospatuko da San Ramon patroia eguna, eta meza nagusia izango da, eguerdiko hamabi t'erdietan.

Astertean, irailak 1, platoari tiro herri txapelketa izango da, eta ordubatean, kalderete txapelketa. Ondoren, nola ez, Plaza Nagusian dastatu ahal izango da. Asteazkenean izango da Kollin



Irunberri.

Clowns antzerki taldearen ekitaldia, eta gabez, Iruña Band orkestra arituko da plazan. Ostira-lean Zaharren Eguna ospatuko da, eta larunbatean, azken eguna, 'Pobre de Mi-ekin' amaituko dira festak.

Atzo hasi ziren Zudaireko festak

P.U. / IRUNEA

Zudaireko festak atzo, osteguna, hasi ziren, gabeko zortzietan bota zen txupinazoarekin. Ondoren, egitarauaren arabera, ezkilen jotze izango zen, eta gabeko bederatzietan kaldereten dastaketa zegoen iragarrita. Dastaketa eta gero, nola ez afari herrikoia. Festak hasteko modu ederra, bai horixe!

Gaur, goizeko zortzietan, argi soinuak izango dira, eta eguerdian meza nagusia, Zudaireko San Estebaren omenez. Ondoren, gazta, urdaiazpikoa eta ardoa banatuko du Udalak herritarren artean. Arratsaldeko zazpitan

amurrainak harrapatuko dira ibaiaren hondartzan, eta gabeko zortzi t'erdietatik aurrera, dantzaldia.

Bihar, larunbata, goizeko zortzietarako daude deituak zudairetarak, frontoian, eta bederatzietan, argi soinuak izango dira karriketan zehar. Eguerdian, dantzaldia, eta arratsaldean, jokat, Aires Navarros taldearen eskutik.

Igandean, hilak 30, haurrendako jolasak eta pilota partiduak izango dira: hasteko Sainz-Moran Ruiz-Martinez aurka —denak zudairetarak—, eta ondoren Balerdi-Satruestegi Lujanbio-Apeztegiaren kontra.

Txerri lasterketak Aratzurin

P.U. / IRUNEA


Aratzuriko festak famatuak dira mundu osoan, duela hamabi bat urte hasi zen ekitaldi bati esker: txerri lasterketak. Horri esker, Amerikaraino heldu ziren Oltza Zendeako herri txiki honen irudiak, eta nonnahi lehiakiderik sortu bada ere, oraindik inor ez da ausartu bertakoei desafio egitera. Ohitura, esan bezala, duela ha-

mabi bat urte sortu zen, koadrilak elkartu eta festetan zerbait berezia egitea proposatu zutenean. Aratzurin ez zen ordura arte horrelakorik egin, baina Jose Mari Iribarrenen liburu batean Aratzurin txerri lasterketak egiten zirela agertu zen, nahastuta hain segur. Orduan, hori gauzatzea deliberatu zuten gazteek, eta hortik aurrera gero eta ospe handiagoa lortu du ekitaldiak. Aurten sei txerrik hartuko dute parte, denak kanpotik ekarritakoak, eta aste osoan zehar izan dira entrenamenduak, 'trenpu onaren' bila. Faboritoen artean, adituek diotenez, basurdeekin nahastutako txerri emea dago, bizkorra oso.

Txerri lasterketak larunbatean eta igandean izango dira, bi txandatan, eta biak arratsaldeko zazpi


t'erdietan, baina horretaz gain, egitarau bitxia eta polita prestatu dute bertan. Atzo hasi ziren festak, eta herri kirola eta herri bazkariak gain, Koxko taldearekin dantzaldia zegoen iragarrita egitarau ofizialean, goizeko laurak arte.

Gaur ostirala, arratsaldeko sei t'erdietarako daude iragarrita idi demak, baina berri hau idazteko unean Aratzuriko festetako arduradunetako batek ezin izan zigen baieztatu azkenean egingo zen ala ez. Bihar larunbata, eta txerriez gain, pilota partiduak eta dantzaldiak izango dira, eta igandean, mus txapelketa eta playblack, bertako partaideen eskutik. Gabez, Aguirren taldeak alaituko ditu aratzuritarrak, eta mozorroen dantzaldia izango da. Festak astelehenean amaituko dira, Yatagan orkestraren eskutik.





Nafarroa eta Ipar Euskal Herriaren arteko harreman komertzialak bultzatzeko proiektua aurkeztu berri dio Matalaz Landa Garapenerako Taldeak Nafarroako Gobernuari, eta bertan azaltzen denez, elkarlana oso positiboa izan daiteke bi aldeetarako. Nafarroako Gobernuak gogo onez hartu ditu azterketaren emaitzak, eta dagoeneko bi proiektu daude martxan: Euskal Herriko gaztak elkarrekin bultzatzeko bata, eta Iratiko egurra transformatzeko bestea.



ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Nafarroa eta Ipar Euskal Herriaren arteko harreman komertzialak etorkizun handikoak eta bultzatu beharrekoak dira, dagoen egoera eta baliabideak horretarako aproposak bait dira gaur egun. Hauexek dira, Nafarroako Gobernuaren enkarguz Matalaz Landa Garapenerako Taldeak egin berri duen azterketaren emaitzak.

Bertan Nafarroako mendialdea eta Ipar Euskal Herriko pymes-en —enpresa txiki eta ertainak— arteko elkarlana aztertzen da, bi aldeetako enpresari, sindikatu, Kontu Ganbara eta abarren artean ehundik gora elkarriketa egin ondoren. Azterketak «oso harrera ona» izan du Gobernuan, bere egileen esanetan, eta dagoeneko banatzen hasia da udaletxe, Kontu Ganbara eta enpresariaren artean.

Nafarroako mendialdea, 5.b izenez ere ezaguna, Sakana eta Errokariko ibarren artean iparraldera doana da, eta azterketan parekotasun handiak antzeman ahal izan dira Ipar Euskal Herriarekin, elkarlanerako itzaropenak eta aurriskuspun onak eskaintzen dituztenak. Bittor Aierdi taldeko partaideak azaltzen duenez, «begi onez» ikusi dute ideia bi aldeetako enpresari eta merka-

talariek, baina animo handiagoa somatu dute Iparraldekoen artean, «Nafarroakoei, akaso, mugatik ateratzea oraindik arraro samar egiten bait zaie».

HURBILTASUNA ETA EGOERA ONA

Nafarroako eskualdearen mugarik zabalenetakoa Ipar Euskal Herriarekin da, nahiz eta alde honekin dauden harremanak bestekoekin baino franko txikiagoak izan. Halaber, azpimarratzekoa da hiriburuen artean dagoen hurbiltasuna. Adibidez, Ipar Euskal Herriarendako Iruñea Bordele —Akitaniako hiriburua— baino askoz ere hurbilago dago, eta distantzia ere Erriberak Iruñearekin duena baino txikiagoa da.

Halaber, Europatik 'mugak josteko' joera nabarmen bultzatzen ari da ezaugarri antzekoak dituzten herrialdeen artean. Honek esan nahi du, hitz bitan, dirulaguntzak handiak direla mota honetako proiektuetarako, eta elkarlana aspaldikoa da, kasu, Alemania, Austria eta Italiaren artean, edota Katalunia, Sardinia eta Rossignolen artean. Nafarroa

eta Ipar Euskal Herriaren kasuan, Euskal Autonomi Elkarte, Nafarroa eta Akitaniak duela gutxi sinatutako komenioak franko erretzen du elkarkana.

Halaber, badago aldeko beste zenbait ezaugarri: Nafarroak ospe eta irudi ona dauka Iparraldean, eta euskara eta Nafarroa Beherea ere lokarriak estutzeko eta harremanak erretzeko baliagarriak dira. Horretaz gain, bi aldeetan bizi den egoerak merkatu berriak bilatzera bultzatzen ditu enpresariak.

TRABA GEOGRAFIKOAK ETA SOZIOLOGIKOAK

Trabak, bestalde, geografikoak, soziologikoak zein ekonomikoak dira. Badago ezjakintasun handia beste aldean gertatzen denari buruz, eta horrek zailtzen du prozesua negozioko egiteko orduan. Gainera, mugen desagerpenak ekarriko dituen ondorioei buruzko ideia garbia ez dago enpresariaren artean, eta garraiobideak oso zailak eta txarrak dira. Nafarroako enpresariaren artean, adibidez, errezelo handiagoak somatu dituzte azterketaren egileek, lurraldetik kanpo atara-

tzeko dagoen ohitura falta dela eta.

«Oso probetxuzkoak» izan daitezkeen harremanak gauzatzeko, Pirinioen arteko Elkarlan Ekonomikorako Agentzia bat sortzea proposatzen du azterketak, premiak zehazteko, harremanak errazteko eta egitasmoa koordinatzeko. Agentzia hau Gobernuak sortuta edota pribatua izan liteke, baina bigarren formulari erizten dio egokiena.

Bizkarra ematen

A.B. / IRUNEA

Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeak: bizkarra jotzen, baina bizkarra emanez. Iparraldeko anaiekin dauka muga handiena Nafarroak, baina baita zailena eta ahaztuena ere. Betidanik bi aldean arteko harremanak ganadua eta komertzioaren ingurukoak izan dira, baina lurralde zail eta malkorrek ez dute harreman hauek gehiegi sendotzeko betarik eman. Gaur egun zortzi mendatek elkartzen dituzte bi aldeak, baina horietariko bi ia

Agentzia honen behar nagusienetakoa 'Pirinioa' edo 'euskal' marka eramango lukeen produktua bultzatu eta ezagutaraztea izango litzateke.

Orain lan guzti honi probetxua ateratzeko gogoak behar dira, baina hauek ez dira sortuko Gobernuaren aldetik. Bittor Aierdiaren esanetan, «Gobernua prest egon daiteke laguntzeko, baina arrekontuen murrizketek gogorukitu dituzte mota honetako proiektu guztiak: 'Leader' kasu. Enpresa erdi pribatu bat askoz eraginkorragoa izango da, burokrazia traba handia izaten baita askotan».

urte erdiz itxita egoten dira, eta gainontzeko seiak ez dira egokiak garraio astunak edo trafikokopuru handietarako. Eta hemen ere historiak trufa egiten digu. Harremanak zeuden garaian ez ziren ia beharrezkoak errepideak. Egun, ez dira nahikoak.

Bitartean, bi aldean arteko benetako harremana soilik muga egiten duten tokietan edota, akaso, oso gertu eta iharduera ekonomiko handia dutenetan aurki daiteke. Nafarroako beste alde askotan, aspaldian eman zioten bizkarra Ipar Euskal Herriari.



Euskal Herriko gaztak elkartuta

A.B. / IRUNEA

bait da Europa osoan».

Lanak hiru mailatan egiten ari dira. Lehendabizikoan hiru gazta motetan erabiltzen den esnearen ezaugarri kimikoak aztertu nahi dituzte, haien arteko ezberdintasunak zehazteko. Bigarrenik, salmenta bera aztertu nahi da ongi, eta proposamena da plater berezietan hiru gaztak batera aurkeztea, 'euskal gaztak' izenarekin. Horretarako promozioa egingo litzateke zentru garrantzitsuetan: Madril, Parise eta Milano, kasu. Hirugarren mail batean, esne gordinaren erabilera legezatu beharra zegoen Europan, bertako araudiaren arabera ez bait zegoen esne hori erabiltzerik. kontaktu eta harreman franko izan ondoren, azkenean lortu da onspena, eta traba burokratiko garrantzitsua gainditu da.

IRATIKO EGURRERAKO ENPRESA

Bigarren proiektua Iratiko oihanaren egurraren inguruan enpresa bat sortzea da, eta horretarako bilera eta proiektu bat egina dago jadanik. Hemen ere asmoa bestaldean sortu zen, Michel Castan Zuberoako Sindicat-ekoaren bidez. Hau harreman jarri zen Nafarroako udal eta entitateen ordezkariekin, eta Mikel Del Rio Aezkoako Batzar Nagusiko presidentek adierazten duenez, Erronkaritik Erroibarreraino bitarteko udalek begi onez ikusi dute proiektua.

Iratiko basoa ustiatzeko eskubidea duten udalek egur askorekin gelditu beharra daukate urtero, ondoren saltzeko zaila dena. Proiektuaren arabera, soberako egur guzti hori transformatzeko enpresa bat paratuko litzateke Atharratzen eta horrela, bi arazo konponduko lirateke: egurraren salmenta, eta transformazio bera



Gaztagintza eta basoen ustiaketan izan dira bi zonen arteko lehendabiziko harremanak elkarlanerako.

ere. Gainera horrela lanpostuak sortuko lirateke behar handia duen alde batean. Ondorengo fase batean Nafarroako zatian ere kokatuko litzateke bigarren enpresa bat.

Zenbait bilera egin da dagoeneko, eta interesa erakutsi dute proiektuan Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlearitzak, baina dena dago Zuberoan egiten ari den azterketa teknikoaren esperoan. Arazoak, beti bezala, traba burokratikoak eta egurraren prezioen arteko ezberdintasunak dira.



Bi zonen arteko elkarlanari buruzko teoria guztiak hutsak lirateke ezertan gauzatuko ez balira, eta oraindik oztopo franko eta tradizio falta handia somatzen bada ere, badaude dagoeneko mugak josten aritzen direnak. Gaztagintza eta basoen ustiakuntza arlotan hasiak dira harremanak, «etorkizun handikoak» biak, bultzatzaileen esanetan.

Lehendabiziko proiektua Euskal Herrian jatorrizko izendapena duten hiru gazten —Roncal, Idiazabal eta Ossau-Irati— arteko elkarlana bultzatzea litzateke. Horretarako azken bilera maiatzaren 21ean egin zen Atharratzen (Zuberoa), eta gutxi barru hiru sor marken administrazio kontseiluetako buruak elkartuko dira proiektua eztabaidatzeko.

Idea aurtengo maiatzean Maulen egin zen Dantzarien Biltzarran sortu zen, Beñat Etxebest Mauleko Arapitz Landa Garapenerako Elkartekoak azaldu duenez. «Ekonomia eta kultura nahi ginituen lotu, eta hiru gasnen buruer proposatu genien lan baten abiatzea. Berehala ikusi dugu bazela nahikunde bat horretarako, baina ez orain berehala ekoizpen ukaiteko, baizik eta erdiko epe batean zerbait ateratzeko». Asmoa ez da izango, Etxebesten esanetan, hiru markak nahastea, «baizik eta euskal itxuraz baliatzea hiruren promozioa egiteko».

GAZTEN ANTZEKO EZAUGARRIAK

Hiru gaztek antzeko ezaugarriak dituzte, latxa arrazako ardien esnearekin eginak, esne gordina erabiltzen dute eta euskal irudiarekin saltzen dira. Hain zuzen ere, hori da elkarlanerako argudio sendoenetako bat, Etxebesten esanetan «euskal imajina oso ongi saltzen



Landa garapenak lehen arloari erreparatzen dio gehienbat.

Matalaz, landa garapenean lehena

A.B. / IRUNEA

Matalaz Landa Garapenerako taldea sei lagunek osatzen dute, seiak arlo honek elkartuak eta aurrera jarraitzeko nahia dutenak. Izena Zuberoako pertsonaia historikoari hartu zioten, «bera izan bait zen bere garaiko landa garapenerako lehendabiziko agentea».

Nafarroako mendialdea garatzeko 'Leader' izeneko proiektuaren barruan elkartu ziren, Nafarroako Gobernuak osatu zuen taldearen barruan, baina seiak egotzi zituzten proiektutik gobernu aldaketa izan zenean. Orduan, arlo bereko hiru azterketa burutzeko enkargua egin zieten, eta hor osatu zen taldea.

Hiru proiektu hauek duela gutxi amaitu dituzte, eta bi martxan daude jadanik. Garrantzitsuenak Ipar Euskal Herria eta Nafarroako elkarlanari buruzkoa da, baina hori izango da, indarrean paratzeko arazo handien izango duena.

Bigarrena, Larraun bailarako bultzapen turistikoari buruzkoa, luze gabe aurkeztuko dute era ofizialean. Matalaz taldeak gidari turistikoaren talde bat osatu du horretarako eta argibideak ematez gain, eskaintza biltzen eta osatzen lagundu du. Orain, triptikoa egina dago, eta Larraungo Udalak eta Lekunberriko kontzejua hartu dute egitasmoaren ardura.

Hirugarren proiektua Nafa-

roako basoen kontserbaziorako taldeei buruzkoa izan da. Horretarako, Matalaz taldeak zenbait talde bildu ditu, basoen garbiketa eta kontserbazio lanez ardura izango dutenak, eta batzuk lanean ari baldin badira, hurrengo urtetarako gehiago sartuko direlakoan daude, aurten aurrekontuekin arazoak izan bait dira.

Hauek utzita, beste proiektu bila dabil taldea, baina oraingoan udal eta bertako entitateengana jotzea deliberatu dute, Gobernuak mota honetako lanetarako ezarri dituen aurrekontu murrizketak direla eta. Interes handia antzeman dute mendialdeko udaletan lan hauei buruz, eta proiekturen bat dagoeneko eskuartean daukate.

Gazteendako Zokoa

Ur-zozoa

Cinclus cinclus
Ur inguruetan beti
Nafarroako iparraldean
Badaki igeri egiten




Ibai garbien adierazgarria

Zozo arrunta baino txikixea-goa, potoloa da, hegal eta buztan motzarekin, eta azken hau beti altxata darama. Gehienetan ibai eta erreken ondoan egoten da, beti talde bereberekin edo bakarrik. Halaber, beti ibaiaren zati berberan ibiltzen da.

Arrea dauka burua eta sorbalda, baina atzekaldean nabarra nagusitzen da. Bularraldean daukan txuria da, hala eta guztiz ere, gehien nabarmentzen zaiona.

Uretan dauden insektuak dira bere elikadura, eta batzutan loinak eta antzeko arrain txikiak ere harrapatzen ditu. Trebea da igeri egiten eta badaki uraren azpitik ibiltzen. Kabia belarrez eta goroldioaz osatzen du, eta goikaldea estalita egoten da. Harri, zubi eta baita enborretan ere paratzen ohi ditu, beti ibai eta erreken ertzetan, eta askotan ur jauzi edo korrante on baten ondoan.

Emeak hiru edo lau aldiz erruten du urtero, eta bakoitzean laupabost txorikume ateratzen dira. Nafarroako iparraldean dago oso zabalduta, eta tarteka hegoaldean aurkitzen bada ere, beti mendialdean izaten da. Ur-zozoa aurkitzea ibai edo erreka garbi baten adierazgarria izaten ohi da.



Chez le dentiste

IKERNE INDAKOETXEA

Telefonoz deitu ninduten, hilak 10, 5.30etan, dentistarengana joan behar nuela esanez. Lasai asko gelditu nintzen.

Egun hura besteak bezala pasa zitzaidan: mantso mantso. Ez nintzen dentistarengana joan behar nuela ere gogoratzen. Bigarren atsedaldia etorri zen, eta harekin dentistaren oroimena, haginak min egiten zidan! Dentistak egin beharko zidanaz arduratzen hasi nintzen, tornea sartu, hagina kendu, enpatea egin...! Hura buruko mina jarri zitzaidana! Gainera, beste bi klase gehiago nituen astelehena zelako.

Bi klase luze haiek amaitutakoan etxerako bidea hartu nuen eta tarte hartan aluzinazioak ikusten hasi nintzen (tornea, hagin-ateralea, pasta, lima...), burua galduta nuen, zein gaizki sentitzen nintzen. Nik banekien irudi guzti horiek neure buruak sortuak zirela eta lasaitzen hasi nintzen, beldurrez joan zitzaidala ere esan dezaket. Zeren guzti hura beldurra besterik ez zen. Eta ez pentsa ni edozeinekin beldurtzen naizenik!, dentistak munduko gizakirik gogorrena ere beldurtzen

bait du. Iritsi zen egiaren ordua, eta beldurrari aurre egin behar nion. Behetik deitu nuen eta nire izena esan orduko portaleko atea ireki zen. Eskailerak igo eta lehendabiziko pisura iristean nire beldurraren atea ireki zen. Baina..., arraroa zen: ez nengoen batiere urdurik ez eta beldurturik ere.

Liburu bat eramane nuen itxaroten nuen bitartean irakurtzeko. Nire aurrekoak joan ziren eta erizainak nire izena aipatu zuen. Itxaron gela handi hura utzi eta dentistaren aulkian eseri nintzen.

Dentistak ahoa irekitzeko esan zidan, esan eta egin, baina oso arraroa gertatzen zitzaidan beldurrik ez edukitzea. Badakit sartzean ez nuela beldurrik baina egoera hura diferentea zen. Dentista emakumea zen eta ez dakit horrek eman zidan konfidantza edo zer zen. Oso atsegina zen erizaina nirekin... beno, izan beharra dauka, bestela!

Gako baten antzeko tresnatxo bat sartu zidan ahoan eta haginean sartzen saiatuz hasi zen. Atzekaldeko hagin batean gelditu zitzaidan tresnatxo hura. Nazkagarria zen, eta dentistak pena

itxurazko gezurrezko aurpegiz begiratu eta zera esan zidan:

—Atzeko hagin horretan zulo txo bat daukazu, enpate bat egin beharko dizugu.

Beldurra niretzat eta pena poltsikoarentzat.

—Beno, lehenbailehen egin ezazu!— esan nion.

Orratz bat sartu zidan atzekaldean, anestesia izango zelakoan nago, eta bi minutu itxaron ondoren tresna hura nere hagin politan zuloa egitera sartu zuen. Tresnatxoak egiten duen soinua ez dut inoiz ahaztuko. Mila eta bat aldiz min eta hotzikara eragin ondoren, pastak jarri zizkidan. Lehenengo betetzeko bat, gero zilar koloreko beste bat eta azkenik fluorra zuen beste bat. Hitz bitan esanda, prozesu osoa. Dena bukatu ondoren, poltsikoa hustu eta utzi ninduten. Ahoaren atzekalde guztia lotan nuen oraindik eta okerrena, bi ordu pasa behar izan nuen ezer jan gabe. Baina azken batean ez zen horrenbestearinokoa izan, gela guzti hura goitik behera nekien, baina bestela... ezer. Ni bezala zazpi enpate dituztenek ulertuko naute, bat bakarra duenak, ordea ez horren ongi.



BASAJAUN

Historia herriak idazten du, eta Lurraldeak, herri honen zati bat den aldetik, historiaren zati bat ere idatziko du. Hiru urtez borrokan, lan gogorrean, martxa gatazkatsuetan, non betikoen kolpeek ere ez zuten huts egin; are gehiago, nabarmendu zen beren presentzia.

Fideli gertatuko zaion bezala, historiak epaitu eta kargurik gabe libre utziko du Lurraldea, eta Jonan, Victor, Begoña eta beste hainbeste gizonezko eta emakumezko askoren gogoan geldituko dira egindako lan onari esker.

Baten batek metrailetak zintzilikatu zizkien lepotik, beraiei ez zegozkien metrailetak, zintzilikatu ere; baten batek bidea okertu zuen; baten batek oraindik gauzatu ez den —emango diogu beta itxaropenari— amaiera nahi izan zuen...

Atxitarte, aintzinako haitzak, gure historiaren begirale isilak eta ezkutuak, beren saihestak zauritu nahi dituzte. Eako gizonak: ez bakarrik ekologiarri begira, baizik eta poesia edo nostalgiarri erreparatuz —penagarria litzateke garai hauetan horretarako eskubideak ere ukatzea— Nafarroak merezi duena egin ezazue. Ahaztu itzazue interes politikoak.

Txanpainarekin topa egitea lekuz kanpo dago, baina ez senperrenak eta bost egitea hondamendi ekologiko hau saihesteko. Atxitarte moztu nahi izatea temoso izatea da, erakundeek ezin dutela huts egin adierazi nahi izateko. Hori da gure begirune handiena merezi duen lurra kolpatzea, hemen apopiloak besterik ez garelarik.

KAZKARROAN

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoan Malerrek jasotako esaera zahar bat ageriko zaizu.

1. Ate itxia irekitzekoa
2. Hor ..., Mari Anton
3. Ahaire
4. Landare hazkura emalea
5. Moztu

B	1	B	10	A	6	B	3	D	9	A	11
D	6	A	5	B	11	A	10	D	3	A	3
A	1	B	9	D	5	A	8	B	4		
B	2	B	8	D	1	D	4	A	2		
D	8	A	4	B	5	B	6	A	7		

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
A											
B											
D											

N-36

Jenero Xumekoak

Bentako gogoa

Zozaya eta Almodena, Bentako alaba ederrak. Batak gereziak jan ohi zituen hegoaldeko leihoan, besteak, ordea, melokotoiak iparraldekoan. Gaur Bentak gereziando bat dauka hegoaldean eta melokotoiando bat iparraldean. Nire malkoak, berriz, bidean erori eta antzuak izan ziren. Hiru alaba balira, apika hirugarrena niretzat izango zitekeen. Zozaya eta Almodena, Bentako alaba ederrak.

JEREMIAS ERRO

Zaharrak berri

Lasterrari eman, eta agudo geldi.
Hain bizi hasi, eta berehala geldi.

Narbarte
Irabaziak anak arin.
Gehiago irabazteko gogoa sortzen du.

Oskotu
—Egia al da tabakoak bizia laburtzen duela?
—Bai. Hiru ordutan egon nintzen zigarrorik erre gabe, eta eternitate baino luzeago egin zitzaidan.

Bizi Bizian

Artzain Eguna Uharte Arakilen

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Heldu den igandean dozena bat artzain eta mila bisitari hurbilduko da Uharte Arakilera, Aralarko San Migel eta Beriainen artean. Izan ere, zerbait bada egun hau, ikuskizun ederra bait da ezer baino lehen. Hogeitabost urte pasa dira jadanik lehendabiziko eguna antolatu zenetik, eta sendotasun azpimarratzekoa erakutsi du ibilbide osoan bertako Aralar-Mendi Elkarrekin antolatutako egun honek.

Azken urteotan bezala, Geinbera zelaian arratsaldeko bostetan jokatu den Nafarroako XXV Artzain Zakur Lehiaketa izango da ekitaldi nagusia. Aurten Amaiur, Urbasa eta Orbaitzetan egin diren kanporaketan ondorekin, hamabi bat artzainek, beren txakurrekin, hartuko dute parte, eta lan hoberenari egindako sariaz gain, jantzi hoberekin duen artzainak eta euskal artzain txakur hoberenak ere izango dute saria.

Txakurrek hiru proba bete beharko dituzte: obedientzia, artalde biltzea eta hesiarako sarre. Lehendabizikoan txakurrak markatutako ibilbide batetik joan beharko du, artalde dagoen lekuaren aurkako ibilbidetik, joan ere. Artalde biltzea izango da bigarren proba, eta horren barruan artaldea artzainarengana eraman beharko du txakurrak, eta ondoren ateska batetik pasaztea. Hirugarren proban, zailena dena, txakurrak hesi baten barruan sartu eta ondoren atera egin beharko du artaldea. Irabazleak eta bigarrenak Nafarroaren partetik izango dira Euskal Herriko txapelketan, eta irabazleak Nazioartekoan.

Baina artzain txakur txapelketak fama handiena izanda ere, izango dira beste lehiaketak egun horretan, eta lehendabizikoa IX Artesne-gazta lehiaketa. Parte hartzeko gaztek etxeko ardi esne gordinarekin eginak beharko



dute izan, eta 60 egunez aurretik onduak. Irabazleak 20.000 pezeta saria eta ariko berezietakoa eskuratuko du.

Halaber, IX Nafarroako Latxa ardiaren erakus-esne produktio lehiaketa izango da, bildots taldeak, ardi taldeak eta bakarkako ariei irekia, eta ardi mozte exhibizioa ere ikusi ahal izango da Sakanako herrian.

Igandeko partaideak

- 'Argi'. R. Goikoetxea (Uharte-Arakil)
- 'Beltz'. Alejandro Ibarra (Lakuntza)
- 'Concha'. Javier Fernandez (Otano)
- 'Moro'. Jesus Razkin (Etxarri-Aranatz)
- 'Lagun'. Patxi Etxeberria (Amaiur)
- 'Cubino'. Felix Irigoien (Amaiur)
- 'Tiki'. Pedro M. Oskaritz (Lekarotz)
- 'Labri'. Jorge Oteiza (Oronotz)
- 'Berri'. Josetxo Billabona (Leitza)
- 'Labri'. J.B. Indart (Orbaitzeta)
- 'Motza'. Iñaki Billabona (Leitza)
- 'Argi'. Antonio Alustiza (Areso)
- 'Fiel'. J.B. Arrosagarai (Luzaide)



J.M. Uztarroz: «Hogeitabost urte betetzea berez da espeziala»

M.K. / IRUNEA

«Ez dugu ezer berezirik prestatu. Bada nahikoa lan eta nahikoa mamia barrutik, eta 25. urtea betetzea, berez, espeziala da». Jose Mari Uztarroz, Uharte Arakilgo Artzain Egunaren sortzaile eta bultzatzaileak barrez erantzuten du edizioa ospatzeko zerbait berezirik prestatu ote duten galdetzen zaionean. «Lehen soilik arratsaldea izaten zen. Orain egun osoa motza gelditzen zaigu, eta hori da benetako lorpena».

Hogeitabost urte hauetan izugarri hazi da egun hau, eta hasieran artzainen topaleku baino ez zena, azkenean Nafarroako artzaintzarendako ezinbesteko erreferentzia bihurtu da. Artzain txakur txapelketari, gazta lehiaketak jarraitu zion, eta ondoren etorri ziren latxa arraza lehiaketa eta ardi mozte lehiaketa. Bitartean, egun berean ere gaztagileen erakusketa ederra antolatu zen, eta promoziorako egun garrantzitsua da Nafarroa osoan.

Uharte Arakilgoaz gain hain-

bat herritan ere kanporaketak antolatzen hasi ziren, eta Amaiurren aspaldian finkatuta, aurten Urbasan —bost urte jarraian—, eta Orbaitzetan egin dira. Hau izan zen joan den igandean, eta bertan zonako hiru artzain, Leitzaaldeko beste hiru eta Iparraldeko bi agertu ziren.

Hurrengo astean, halaber, zenbait mintzaldi eta mahainguru izango da artzaintzaren etorkizunari buruz, Nafarroako Gobernuaren teknikari eta adituekin.



Patxi Etxeberria amaiurtarra.

Uharte Arakilen ospatuko da heldu den igandean, hilak 30, Artzain Eguna. Jadanik hogeitabostgarren edizioa, eta artzain txakur txapelketaz gain, gazta lehiaketa eta latxa ardiaren erakus-esne produktio lehiaketak izango dira, besteak beste. Hala ere, egun honetako meritua —antolatzaileen meritua—, ikuskizun hutsetik hartuzago joatea izan da, eguna gazta eta artzaintzaren beraren sustapenerako funtsezkoa bait da gaur egun. Gaztagileek ere ez dute huts egingen egun honetan, eta tresneri erakusketaz gain, mintzaldiak eta mahainguruak izango dira igandea ondoren. Jose Mari Uztarroz egunaren arimak azaltzen ohi duenez, «azken finen eguna artzainena bait da».

Mari Abrego

.....Mendizalea

«Gailurra gutxienekoa da»

PATXI ULAIAR / IRUÑA

EGUNKARIA.— Espedizio honetara ez zara joan zure ohizko lagunarekin, Josema Casimiroekin. Zertan somatu duzu huts hori?

MARI ABREGO.— Espedizio hau bikaina izan da, zentzu guztietan. Josemak ezin izan zuen etorri, eta neretzat pena bat izan zen, biok bikain moldatzen bait gara. Osa-garriak gara erabat, nolabait esateko. Azkenean bikote oso ona osatu dugu, eta egoera benetan larriak bizi izan ditugu elkarrekin. Horregatik, behin bat ona ateraz gero bera ez izatea... Bera etorri zitzaidan gogora lehendabiziz, eta, bai, pena eman zidan.

Gainera, bere hutsa somatu nuen, bai. Mendian zaudenean, askotan zerbait esan behar duzu, eta Josemarekin begirada bat edo keinu bat nahikoa da. Eta gauza handiak egiteko, elkarrekin oso ongi moldatu beharra dago.

EGUNKARIA.— Zuk askotan aipatzen duzu urtero zerbait handia egin behar duzula, eta duela bi urte oso ezkor azaltzen zinen azkenengo espedizioetan gailurra lortu ez zenutelako. Gailurra egin behar horrek ez al dizu eragozten mendiaz benetan gozatzea?

ABREGO.— Bai, erabat. Iaz Kanchenjungara egin genuen espedizioa izan zen adibide garbiena. Hori da antimendizaletasunaren adibide garbiena. Orduan, oso zapore mikatza gelditu zitzaidan, zeharo presionaturik joan ginelako. Laguntzaileek presioa egiten dute, nahiz eta ezertara behartu ez. Nik eman behar diet, beren diruaren truke, iragarri dudana, eta zorretan gelditzea oso gogorra da. Orduan, zure limitea gainditzen duzu, eta tentsioa,

presioa, izua, dena nahasten da. Ez zara gozatzen ari, eta hori ez da benetako mendia. Baina hori jende askori gertatzen zaio, ez neri bakarrik.

EGUNKARIA.— Baina, hala ere, itzultzen zara behin eta berriro.

ABREGO.— Jakina, badauzka alde txarrak, baina mendia ez da txarra. Neretzako gizakume bat hazitzeko modurik egokiena da mendia, bertan zure burua ezagutzen duzulako inon baino hobeki. Pentsatzeko eta gozatzeko astia ematen dizu, eta hori espedizio baten bidez bakarrik lor dezaket.

EGUNKARIA.— Ematen du mendizaletasuna apurtuta dagoela Himalayara joaten direnak eta beste mendietara joaten direnen artean. Oraindik gozatu daiteke Himalayan?


ABREGO.— Nik aurten froga bat egin dut, eta Himalayara inolako konpromezurik gabe joan naiz, nere kabuz. Gaizki ateraz gero amaieraren hasiera izan zitekeen, eta ekonomikoki ere larria izan zitekeen, inolako laguntzarik ez bait nuen. Ongi atera zait, eta han benetan gozatu egin dut. Gailurrean ez nuen ezerrekin argazkirik atera beharrik. Ni nintzen, bakarrik, eta oso libre sentitu nintzen, ni neu. Benetan gozatu nuen.

EGUNKARIA.— Everestera joatea oraindik buruan daukazu, baina lehengo erara egingo zenukeela aipatu duzu, era 'klasi-koan'.

ABREGO.— Bai, mendi batera laguntzarekin —oxigenoa, sherpak— joateak ez dizu besteak adinako poza ematen, ahalegina txikiagoa bait da. Ni orain arte beti aintzindaria nintzen metodoetan, baina ez dut zortirik izan, eta gailurrik ez dut lortu. Horre-

Mari Abrego nafarrak Nanga Parbat gailurra egin zuen joan den uztailean, Nafarroa oso sanferminetan zegoelarik. Zenbait espedizioetan kaskoraino heldu ez izanak krisialdi gogorra sortarazi zion duela urtebe-

te, baina azkenengo honek itzuli dio poza eta baikortasuna. Berarekin mintzatzea mendiarekin benetan maitemindurik dagoenarekin mintzatzea da, bere dendaren gelatxoan izanda ere, begiei lilura bait darie mendi urrun haietaz ari denean.



Irunean duen kirol dendan.

JOXE LACALLE

gatik, azkenean zalantzen jartzen duzu ongi egin duzun ala ez, atzean presioa dagoelako. Jendea ez zaio axola nola igo duzun, igo duzun baizik.

EGUNKARIA.— Hala ere, mendizaleen artean baloratzen da asko erabilitako modua.

ABREGO.— Bai, nik beti esan dut mendia gauzak egiteko modu bat dela, eta ez da sekulan nere asmoa izan gailur zerrenda baten bilduma egitea. Horretarako beste planteamenduak egin behar dira, eta gailur errezak bilatu

behar dira. Formula bat da, baina neri betidanik bestea gustatu zait gehiago: zure baliabideekin bakarrik igotzea, zuk zeuk dena prestatzea eta burutzea. Mendizaletasuna ez da bakarrik mendia igotzea, eta azkenean hori gutxienekoa da. Garrantzitsuena zailtasunak dira, eta jakitea zuk zeuk gainditu dituzula. Hori da poza ematen dizuna, eta hori da polita. Gailurra lortzea polita da momentu horretan, baina beste gauza batzuk garrantzitsuagoak dira.

EGUNKARIA.— Himalayan badago azken urteotan espedizio eta jende pilaketa handia. Kezkatzen zaitu?

ABREGO.— Bai, kezkatzen nau, baina ekologikoki baino —kaltea ez da hemen uste dugun bezain gogorra— mendizaletasunari dagokion neurrian. Errealitatea desitxuratzen ari da, eta Everest izena balorea galtzen ari da.

Nanga Parbat gailurrean benetan gozatu egin nuen. Ez nuen ezerrekin argazkirik atera beharrik. Ni nintzen, bakarrik, eta oso libre sentitu nintzen, ni neu sentitu.

1982an Martin Zabaletak gailurra lortu zuenean izugarriko lana zegoen atzetik, jende askorena, eta meritu handia izan zuen igoera hark. Egun, badago zortzi mila metrotaraino ia ezer egin gabe heltzen direnak, behean hiru pertsona dagoelako. Gainera ondoko herritarrek ere, oso kolpe gogorra jasaten dute hainbeste jende ikustean. Horiek dira benetako arazoak.

EGUNKARIA.— Zein da mendian bizi duzun unerik hobereena?

ABREGO.— Ez daukat une berezi bat, badaukat makina bat. Mendi guztietan daukat oroitzapen onak eta txarrak. Neretzat mendizaletasunak epe luzean eman behar dizu poza, ez bakarrik une batean. Une pozgarri asko behar ditut nik.

NOSKI JATOR



ZVLDI EROA